

Izena: _____

Data: _____

Gotzonek ez du klaserik

Gotzon gurasoekin eta anaiarekin baserri batean bizi zen. Goizero goiz altxatzen zen ikastolara joateko.

Baina egun hartan, igandea zenez, Gotzon bere etxeko logelan zegoen egunkaria irakuntzen. Begietan betaurrekoak zeramatzan hobeto ikusteko.



Gero, globo bat hartu zuen; biguna zen baina puztu zuenean gogortu zen. Aspertzen zenez, gurutzegrama bat egin zuen.

Beranduago bere gogokoa zen ipuin bat irakurtzen hasi zen. Ipuina sorgin bati buruzkoa zen. Sorginak gona luze bat zeraman baina ipuinean kontatzen zena gezurra zen, sorginak ez daudelako.



Ipuina irakurtzen bukatu zuenean, ogia eta gazta hartu zituen eta askaria prestatu zuen. Hori egin ondoren, azkariarekin kalera atera zen eta baloi batekin jolasten hasi zen.

GALDERAK

1) Norekin bizi zen Gotzon?

Lagunekin

Gurasoekin

Bakarrik

2) Zergatik ez zuen klaserik?

koronabirusagatik

Oporretan zegoelako

Igandea zelako

3) Zer zeraman begietan hobeto ikusteko?

Betaurrekoak

Zapi bat

Ezer

4) Nolakoa zen globoa?

Gogorra zen

Leuna zen

Biguna zen

5) Zeri buruzkoa zen ipuina?

Planeten buruzkoa

sorgin bati buruzkoa

Animalien buruzkoa

6) Zer zeraman sorginak?

Gona luze bat

Praka motzak

Soineko luze bat

7) Nolakoa zen ipuinak kontatzen zuena?

Benetakoa

Gezurrezkoa

8) Zer hartu zuen askaltzeko?

Txorizoa

Txokolatea

Ogia eta gazta

9) Zerekin jolastu zuen askaria hartu ondoren ?

Sokarekin

Baloiarekin

Tronparekin

ARIKETAK

1) Zer egin zuen igande hartan Gotzonek bere etxean? . Irakurri hurrengo esaldiak eta bakoitzaren ondoan jarri egia ala gezurra den.

o Egunkaria irakurri zuen. Egia Gezurra

o Gamelu bat margotu zuen. Egia Gezurra

o Hiru marrazki egin zituen. Egia Gezurra

o Betaurrekoak jantzi zituen hobeto ikusteko. Egia Gezurra

o Globo batekin jolastu zuen. Egia Gezurra

o Bere logela garbitu zuen. Egia Gezurra

o Gereziak eta ogia jan zituen. Egia Gezurra

o Ogia eta gazta hartu zuen askaria prestatzeko. Egia Gezurra

o Sorgin bati buruzko ipuin bat irakurri zuen. Egia Gezurra

o Baloi batekin jolastu zuen. Egia Gezurra